



ikastolak



IBAIALDE IKASTOLA
LODOSA



KiVa egunero izan behar da

Ikasturte honetan, berriro KiVa lantzen hasi ginen. Denok jakingo duzue dagoeneko, KiVa zer den baina...

Ibaialde Ikastola

LODOSA- Finlandian, haur asko jazarpena jasotzen zuten zerbait egin behar zela pentsatu zuten. Horren ondorioz, KiVa programa sortu zuten. Beraz, KiVa programa jazarpenaren aurka lan egiteko sortu da. KiVa-ren esanahia horixe da: Jazarpenaren aurka eta finlandiaraz Klusamista Vastaan. Gaur egun KiVa programa Ibaialde Ikastolan aurrera eramaten ari gara, baita beste ikastola askotan ere.


Guri asko laguntzen digute horrelako ariketek eta horrelako hizketaldiek gure arteko harremanak hobekian izan daitezkeen, ikastola txiki bat garelako eta familia baten modukoa. Baina hurrengo urteetan, DBH egitera inositututa edo ikastolara joatea egokituko zaigu, oso leku asko handiak izango

dira eta hor sor daitezkeen arazoetan ere mesedegarria izan daitekeela pentsatzen dugu.

Iaz hasi ginen KiVa lantzen eta aurten bigarren hiruilebetan ekin diogu berriro. Pasa den urtean astelehenero lantzen genuen KiVa eta oso ondo pasatzen genuen, bideoak ikusten, ariketa desberdinak egiten, antzerkiak, elkarrizketak, galdetegiak...

Aurten hainbat ekitaldirekin ospatu genuen eguna:

Hasteko, gela desberdinetan gure artean KiVa-ri buruz hitzegin genuen ea zer gogoratu genuen ikusteko. Oso elkarrizketa politak izan ziren eta gauza guztiak gogoratu ondoren, txikien geletara jeitsi ginen beraie KiVa zer zen azaltzera. Txikiak ere oso gustora egon ziren eta oso txintxo portatu ziren. Jazarpenaren kasu desberdinak



KiVa programa martxan jarri dugu ikastolan.

azaltzeko eta beraiek hobeto ulertzeko, antzerkiak egin genituen eta ondoren, galdetzen genien beraiek

zer egingo luketen jakiteko. Erantzun batzuk oso farregarriak izan ziren, baina orokorrean oso adi

egon ziren.

Hurrengo egunean KiVa logoa patioan marraztu eta margotu genuen; eta hainbat argazki atera ondoren, joku kolaboratiboetan (irakasleek horrela deitzen dituzten) jolasten hasi ginen: jolas batean eskuak askatu gabe uzta batzuetatik pasa behar genuen, eta uztaiek lurrean zeudela, kentzen saiatu behar ginen eta bukaeran denok uzta berdinean sartu. Beste joku batean denon artean yogako baloi handi bat eraman behar genuen muga batetara eta denak baloi berdina ukituz. Azken jokuan talde osoak ahalik eta globo gehien airean mantendu behar genituen eta modu honetan taldeko lana zein garrantzitsua zen ikusi genuen.

Jokuak bukatu zirenean denok puxikekin jolastu genuen eta horrela bukatu zen KiVa Eguna. Oso dibertigarria izan zen, hala ere, oso garbi daukagu KiVa eguna egun guztietan ospatu behar dela, argi ikusi dugulako jazarpena jasotzen duten haurrek zein gaizki pasatzen duten eta modu desberdinetan guk asko lagundu dezakegula. ●

INKESTA

ISMAEL MARTIN ETA OIER ZABALETA IKASLEEK KIVA PROGRAMAREN INGURUAN GALDEZKA ARITU DIRA



ISMAEL MARTIN
6. mailako ikaslea


Gustoko duzu KiVa? Bai, jazarpena ez delako ematen gure ikastolan.

Nola ikusten duzu KiVa? Oso serio ikusten dut.

Zein gauza onak ekarri ditu KiVa? Jendeak gehiago hausnartzea harremanen inguruan.

Hobeto moldatzen al zara jendearekin? Bai. Bai lagunekin eta baita irakasleekin hobetomoldatzen garelako.

Gehiago hausnartzen dituzu gauzak KiVa ren ondorioz? Bai.



OIER ZABALETA
5. mailako ikaslea

Gustoko duzu KiVa? Bai. Asko pentsatzen dugulako jazarpena egonez gero, nola sentituko ginen.

Nola ikusten duzu KiVa? Serioa iruditzen zait.

Zein gauza onak ekarri ditu KiVa zure ustez?

Jendea gero eta gehiago hausnartzen ari da jazarpena eta erlazioai buruz.

Hobeto moldatzen al zara jendearekin? Askoz hobeto moldatzen naiz nire lagunekin.

Gehiago hausnartzen dituzu gauzak KiVa ren ondorioz? Asko pentsatzen dugu KiVa-ri buruz.



IBAI VERANO
4. mailako ikaslea

Gustoko duzu KiVa? Bai. Oso pozik nago jazarpenik ez dagoelako gure ikastolan.

Nola ikusten duzu KiVa? Serioa iruditzen zait.


Zein gauza onak ekarri ditu KiVa zure ustez?

Jazarpena eta borrokak ez egotea.

Hobeto moldatzen al zara jendearekin? Bai.

KiVa-ren ondorioz lagun gehiago egin ditut.

Gehiago hausnartzen dituzu gauzak KiVa ren ondorioz? Bai. Gehiago ari naiz hausnartzen erlazioei buruz.



JUNE BEDMAR
3. mailako ikaslea

Gustoko duzu KiVa? Bai. Ez dagoelako jazarpenik.

Nola ikusten duzu KiVa? Jolas bat bezala.

Zein gauza onak ekarri ditu KiVa zure ustez?

Jazarpenik ez egotea.

Hobeto moldatzen al zara jendearekin KiVa ren ondorioz?

Bai orain lagune gehiagorekin jolasten dut.

Gehiago hausnartzen dituzu gauzak KiVa ren ondorioz? Bai. Inoiz ez dut horrenbeste hausnartu.

LEHIAKETARAKO GALDERAK

1. Non sortu zen KiVa programa?
2. Zein da proiektu honen helburua?
3. Hobeto moldatzen al da Oier KiVa ikastolan martxan jarri zutenetik?
Bidali zuen erantzunak nie03@ikastola.eus helbidera, zure izen-abizenak, telefono zenbakia helbidea eta ikastolaren izenarekin batera.

IRABAZLEAK

OINEZ BALEA (1): Saul Rebolé (Zangozako Ikastola).
OINEZ BALEA (2): Amets Ariztizabal (Andra Mari Ikastola).
OSASUNA (6 sarrera): Hugo Jimenez (Tafallako Ikastetxea), June Bedmar (Ibaialde Ikastola) eta Aritz Ramirez (Ibaialde Ikastola).



Datu Pertsonalak Babesteari buruzko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoan xedatzen dena betez, zure datu pertsonalak ZOZKETA fitxategian sartuta daudela eta horren helburua erakundeak antolatutako zozketak kudeatzea dela jakinarazten dizugu. Fitxategia Datuak Babesteko Agentzian aitoritu dugu eta datuen segurtasuna bermatzeko neurriak ezarri ditugu.